



MIGRATZAILEAK

Eskubideez desjabetutakoen bidaia Euskal Herrira

MUGAKO EGOERETAN ELKARTASUNA

Uda honetako gai nagusia izan da: migratzaile multzoak autobus geltokietan, horri erantzunez herritarrek aktibatutako elkartasuna, eta atzetik erakunde publikoek ia egunero jaulkitako datu eta adierazpenak, jarri dituzten baliabideak zerrendatuz.

Larrun honetan iritsi berrien errealitatean murgildu gara, urtetan hauen eskubideen defentsan ari diren pertsonen eskutik. Eta ustekabeen, ispilu batekin egin dugu topo: beltzen egoerari begira zurien burua da ikusi duguna, zurien ekonomia, mendebaldarron mito eta uste okerrak, administrazioan agintean direnen eta herri mugimenduetan dihardutenen logika ezberdinak... Migrazioaren gaiak irekitzen duen pitzadura apasionagarria da, Euskal Herriko gizarte ereduak jartzen baitu eztabaidagai.

Biribiltzeko, Asier Gonzalez de San Pedrok aparteko erreportajearen kontatu du barrutik bizi izan duen Donostiako Txantxarreka gaztetxearen esperientzia.

■ **Egilea: Estitxu Eizagirre Kerejeta**
Argazkiak: Dani Blanco

Azala: Joseba Larratxe **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia, 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.614. zenbakiarekin banatua, 2018ko irailaren 30ean)



Irungo Lakaxita gaztetxean, iritsi berria informazioa irakurtzen.

Mohammed Mahmud eta Issah Naziru Ghanatik etorri ziren Euskal Herrira. Beren esperientzia eta gure uste okerrak izan zituzten mintzagai maiatzean Donostiako Gros auzoan emaniko hitzaldian. "Gure herrialdeko denek ez dute hona etorri nahi, badira han ongi bizi direnak" ohartarazi zuen Naziruk. "Uste duzue Afrikatik honainoko bidaia egiteko, aberatsenak etortzen gara. Aberatsa banintz, nire herrian biziko nintzateke" esan zuen Mahmudek. Naziruk azaldu zuen familiarengandik urruntzearen mina: "Bost urte daramatzat gurasoak ikusi gabe. Behin amak telefonoz esan zidan 'ez dakit noiz ikusiko zaitu-

dan berriz. Zuk badakizu non nagoen ni, baina nik ez dakit zu non zauden'. Eta bizitza ez dago gure esku, edozein unetan hil gaitezke. Hori guztia barruan izanik, hona etorri eta gehiago izorratzen bazaituzte, oso gogorra da".

Anaitze Agirre Larreta SOS Arrazakeriako kide da aspaldidanik, eta egun Irungo Harrera Sarean dabil buru-belarri. Mundu mailako migrazioarekiko dugun ikuspegia oso desitxuratuta dugula ohartarazi du: "'Denak hona datoz' diskurtsoa jasotzen dugu eta hori ez da egia. Migrazio gehienak Afrikan hegoaldeetik hegoaldera ematen dira,

ez hegoaldeetik iparraldera. Afrikan jendea oso erraz mugitzen da herrialdeen artean eta bertan gelditzen da. Gero, migratzen hasten direnean eta migrazio proiektua aldatzen zaienean, jendea iparralderago joaten da eta batzuk pentsatzen hasten dira Europara nola joan. Batzuk hasieratik zuten helburu Europa, baina beste batzuk ez". Iruditegi sexista hori, gizonak migratzen dutela eta emakumeak zain geratzen direla, mitoa dela esan du: "Orokorrean migratzaileen %50 emakume eta %50 gizon dira. Baina adibidez emakume afrikar gehienek hegoaldeetik hegoaldera migratzen dute. Iparralderako bidaiak askoz gogorragoak dira orokorrean emakumeentzat. Ez dezagun pentsa, estereotipoak dioten bezala, emakume guztiak gizonarekin elkartzera etorri direnik. Badira bakarrik datozen emakumeak eta proiektu migratorioa berea dutenak".

Zergatik dugu migrazioaren errealitatearekiko hain pertzepzio okerra? Agirrek jarraitu du:

"Duela pare bat urte Espainiako Barne ministroak bota zuen: '300.000 afrikar daude Europa hartzeko zain'. Datuen erabilera interesatua egiten dute askotan instituzio eta gobernuek. Zertarako egiten dute? Alarma sortu, gizartea beldurtu, eta modu bateko migrazio politikak justifikatzeko. 'Inbaditzen gaituzte, olatuan datoz, pila bat dira...' pentsatzen badugu, agian erraz onartuko dugu 'Melillan hesi handi bat jarri behar da, Marokori eta Turkiari dirua eman behar zaie hori geldiarazteko, eta Mediterraneo itsasoan hiltzen direnak ba... zer egingo diegu, ezin ditugu denak hartu'". Oier Gonzalez kale hezitzailea da, eta buru-bihotz dabil kalean bizi diren gazte magrebtarrekin hainbat proiektutan. Berak ere dio "inbasio" sentsazioa ez datorrela bat errealitatearekin: "Ekain-uztail-abuztuan Bilboko Guggenheim museoak 445.147 bisitari jaso ditu. Epe berean Gaztelugatxek 235.000. Hori ez dugu inbasio moduan hartzen. Aldiz, denbora tarte horretan 3.881 arreta egin zizkien EAEko Guru-

■ **GARBIÑE GOMEZ eta ARATZ ESTONBA**

Laila abokatu taldea



■ **ANAITZE AGIRRE**

Irungo Harrera Sarea




tze Gorriak migratzaileei. Izan ere, udan Donostiara 10 egunero 45 pertsona beltz iritsi dira Gurutze Gorriaren autobusez eta Bilbora beste hainbeste. Eta hori inbasio moduan hartzen dugu. Noren interesa da, aipatutako zenbakietan oinarritutako turismoa inbasio fisikoa izanik zerbait onuragarri moduan ikustea, eta beste batzuen etorrera hain inbasibo ikustea, zenbakiok alderatuta txorakeria bat denean? Hemen-dik pasoa dagoen turista batek zer ekonomia sortzen du, eta hona lanerako prest datorrenak zer ekonomia sortzen du, jasangarritasunaren ikuspegitik? Enplegu sailburuak berriki esan du, demografikoki beharrezko dugu jende hau".

Agirrek Migrazioen Nazioarteko Erakundearen datuak ekarri ditu gogora, Europara datoren migrazioa gutxitu izanaren adierazle: "2015ean itsasoz milioi bat pertsona iritsi ziren Europara. 2016an 262.000 izan ziren. 2017an 101.000 pertsona. Aurten 46.000 pertsona.

ACNURek esan du itsasoz Espainia hegoaldera 27.000 pertsona iritsi direla. Zifra hori barregarria da 47 milioi pertsonako herrialde batentzat. Eta zergatik gutxitu da hainbeste itsasoz Euro-para iritsitakoen kopurua? Mugak esternalizatu direlako. Turkia eta Maroko egiten ari dira orain lan zikin hori". Baina, uda honetan ez al da Euskal Herrira inoiz baino migratzaile gehiago iritsi? Agirrerren esanetan, "Mediterraneoko sarbide nagusia itxi du Italiak. Ondorioz, berriro indartu da Maroko eta Espainia hegoaldearen arteko igarobidea. Gehiago etorri diren Euskal Herrira? Agian bai, bidearen aldaketagatik, udan eguraldiak laguntzen du...". Gonzalezek dio udan hona iritsitakoen kopuruak aurreko urteen antzekoak izanik ere, aurten ikusgarriago egin direla: "Arrazoiz, nire inguruko gazte magrebtarrak haserre daude: haiek urteak daramatzate kalean bizitzen. Donostian kalean bizi diren 18-19 urteko gazteen kopurua 40 lagun ingurukoa da. Eta uda honetan bat-batean gaia mugitzen

■ **IÑIGO SANTXO**

Bilboko Hiritarren Harrera Sarea



■ **OIER GONZALEZ**

Kale hezitzailea



hasi da. Zergatik? Inbasio irudiagatik. Ez da askoz gehiago etorri direlako, baizik, etorrerak askoz ikusgarriago egin direlako. Estalita zegoen errealitate bat lehertu da, Espainia hegoaldean baliabideek gainezka egin dutenean. Lehen modu informalean iristen ziren hona, bakoitza bere kasa, familiarengana... orain autobusean denak elkarrekin ekartzen dituzte, aldi berean". Agirrek galdera deserosoa bota du piztutako elkartasunaz: "Berdin gertatuko litzateke magrebtarrekin edo ijitoekin izan balitz? Migranteen artean, beltzekiko pertzepzio positiboagoa du gizarteak. Errefuxiatuen gaiarekin Europan urtetan ikusi ditugun irudi guztien ondorio ere izan da piztu den elkartasuna".

ZER AZALERATZEN DU MIGRATZAILEEN GAIAK?

Zer ari zaigu seinalatzen 2015etik "errefuxiatuen krisia" esaten zaion hori? Hasteko, Agirrek terminologia zaintzeko eskatu du: "'Inmigrazioaren drama' esaten da, eta ez, drama eragindakoa da, beraz, zehatzagoa litzateke esatea 'inmigrazio politiken drama'. Edo 'errefuxiatuen krisia' ez da egia, 'Europako errefuxiatu politiken krisia' da". Iñigo Santxo Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarte-kidea da, eta Bilbon Hiritarren Harrera Sarean dabil sortze momentutik. Migratzeko arrazoietan jarri du arreta: "Krisia ez da errefuxiatuena, krisian dagoena sistema kapitalista da. Kapitalismoak birsortzeko inperialismoa bultzatzten du, herrialdeen desjabetzea burutzen du... eta horren ondorioa da jendea behartuta sentitzen dela bizitzari beren herri eta familietatik urrunduta ekitera. Ez da fenomeno berria, historikoki errepikatu izan da garai ezberdinetan eta ez soilik Afrikan. Migrazio fluxuak 'naturalak' dira sistema kapitalistan". Gonzalezek "esklabotza" itzuli dela salatu du: "Ghanako 19 urteko gazte batek ederki azaldu zidan behin: 'duela 200 urte gure herrietara trafikanteak etortzen ziren gu bahitu eta Ameriketara esklabo eramateko. Egun gu ateratzen gara Europara esklabo etor-

tzeko'. Izan ere, muga zer da? Ekoizpen sistema kapitalistan, kontrol eta sailkapenerako bitarteko bat. Mugak pertsonen trantsitua erregulatzen du, "nor" eta "nola" "nora" doan zedarritu. Prozesu horretan pertsona zaurgarriak eta menpekoak iristen dira hona, eskubiderik gabe. Mugak, lan-esku merke eta menperatu baterako baldintzak sortzen ditu, norbere jaioterria uztera bultzatzten duen baldintzak eragiten dituen ekoizpen sistema bera hornitzeko".

Beltzean diharduen ekonomiarentzako eskulana bermatzen du migrazio politikak. Ondorio hori atera daiteke, paperik gabekoek egoiliar baimena lortzeko duten bide bakarra hiru urtez bertan bizi izan direla frogatzea baita. Horrela azaldu digute Laia abokatu taldeko kide diren Aratz Estonba eta Garbiñe Gomezek: "Absurdua da. Baimena ematen dietenean esaten ari dira: aupa txapeldun, lortu duzu hiru urte pasatzea poliziak harrapatu gabe ezkutuan lan eginez. Premio! 21 urteko pertsona batek nola lortzen du bestela hiru urte pasatzea? Guztiok dakigu zer gertatzen den". Enpresariez gain, espekulatzailleek ere paperik gabekoen alokairuarekin sekulako pagotxa dutela gehitu du: "Bakoitzari 300 euro kobratu, eta pisuan 15 pertsona bizi badira... eta zerga aitortzen gabe, noski! Hedabideetan 'paterapisia' hitzarekin izendatzen da baina zergatik ez dute jabea seinalatzen?".

Migratzaileen gaiak azaleratu duen beste afera bat, Euskal Herria zeharkatzen duen Espainia eta Frantziaren arteko muga da. Estonbak irmo salatu du: "Muga bat normalizatzen ari gara, agintarien esanetan ez omen dagoena. Eta ez dezagun ahaztu Europar Batasunean zirkulazioa librea dela! Muga horretan 'beroan eginiko itzulketak' Europako estatu batetik bestera egitea sekulako kontraesana da! Onartu dezatela mugak badaudela, edo zirkulazioa librea bada, guztiontzat da librea". Bi estatuetakoa poliziak migratzaileen patata beroa elkarri pasatzen dihardutela azaldu du: "Frantziak migratzaileak jatorrizko herrialdera itzuli beharrean, mugara ekartzen

ditu. Askotan, topoan sartu eta Hendaiara iristean Espainiako polizia hartzen ditu. Kaleratze espedientea zabaltzen diete eta polizia espainolak esaten dio migratzaileari: 'sei hilabete dituzu berriz saiatzeko. Berriz pasatzean berriz harrapatzen bazaituzte, paper hau botu'. Eta aholkuak ere ematen dizkiete: 'pasa behar baduzu pasatu gauez...'. Polizia legez kanpo jokatzeko ari den bitartean, elkartasuna delitu bihurtzeko arriskua ikusten du Gomez abokatuak: "Gu harrapatzen bagaituzte gure bezero edo lagun diren migratzaileekin Irungo zubia zeharkatzen, pertsonen trafikoa delitua egotzi diezagukete". Gonzalezek gogora ekarri du Euskal Herriak muga zeharkatzen metatutako jakintza eta esperientzia: "Mugaldeko praktikak eta elkartasun sareak berreskuratzeko aukera ematen du gai honek. Baina gero eta zailago jarriko dute elkartasuna".

BIDAIA LEGEETAN BARNA

Estonba abokatuak azaldu du Espainiako lurretara sartzeko lortzen dutenentzat estatuak prestatu duen ibilbidea: "Gurutze Gorriak artatu ostean, Espainiako Polizia Nazionalaren eskutik uzten dituzte. Poliziak identifikatu egiten ditu, pasaportea kentzen die eta espediente administratibo bat ireki. Espedientea zabaltzen diote, poliziarri iruditzen zaiolako modu irregularran etorri dela pertsona hori, baina agian ez da horrela, errugabetasun presuntzioa gorde behar da. Espedientea zabaltzerakoan, garai bat egon zen zuzenean denek hezurak neurtuz adina igartzeko frogatik egiten zieten (azken hilabeteetan ez dugu ikusi egiten denik). Pertsona batek pasaportea baldin badu, hezur frogatik egitea ilegala da, dokumentazio bat baduelako adierazten duena nor den eta zer adin duen. Espedientea ireki ostean, normalean jendea kale gorrian gertatzen da. Lehen hiru egunetan aukera du Gurutze Gorriaren egoitzetan lo egiteko, baina gero kalera doa". Espediente administratiboak sei hilabete iraun ditzake, gehienez. Iritsi berriak alegazioak aurkeztu behar ditu, justifikatuz Espainiako

lurretan bere sarrera ez dela irregularra izan eta bertan egoiliar baimena eskuratzeko legeak jarritako baldintzak betetzen dituela frogatuz. Askotan, migratzaileek ez dituzte betetzen legeak egoiliar baimena emateko ezartzen dituen baldintzak. Horrelakoetan geratzen den aukera bakarra azaldua dugu: Hiru urte aguantatzea modu klandestinoan, eta hiru urte horiek pasatuta berriz ekitea legalki egoiliar baimena lortzeari. Baimena lortzeko, errotze txostena aurkeztu behar da, alegia, bertan bizitzen hiru urte darमतzala justifikatzen duten frogak. Honetarako baliagarri da estatura iritsi orduko poliziak ireki zion espediente administratiboa, zein egunetan iritsi zen esateko. Erroldatzea ere bai, bere egoiliar epea noiz hasi zen adierazteko. Eta horrez gain ikastaroak egitea, dinamika anitzetan parte hartzea... hori guztia dokumentatu behar du, aldi berean klandestinitatean egonik, poliziak harrapatuz gero bidaliko bailukete. Eskakizun kontrastankorrak, inondik ere.

Asilo politikoa eskatzen dutenek egin behar duten bidea beste bat da: gudan dagoen herrialde batetik edo beren burua arriskuan dagoen herrialde batetik datorrela frogatzea da migratzaile hauen borroka. CEAR erakundeak bideratzen ditu kasu hauek, eta baldintza oso zorrotzak bete behar dituzte: ez dute lan egiteko eskubiderik, hainbat ikastaro eta programetan parte hartu behar dute... Asiloa eskatu dezaketen gehienek bide honi heltzen diote, baina badu bere arriskua. Honela azaldu du Estonbak: "Asiloa ukatzen badizute eta jatorrizko herrialdean zure bila baldin badabilta, deportazioa dator. Gerta daiteke asiloa ukatuz gero Espainiak kanporatze prozedura zabaltzea eta kalean uztea, eta beraz, paperik gabeko beste helduek bezala, klandestinitatean hiru urtez eusteko bideari heldu beharra".

Adin txikikoena da egoiliar baimena lortzeko hirugarren bidea. Estonbak azaldu duenez, "hauen kasuan berez nahikoa litzateke administratioko edozein tokitara joan eta esatea: 'adin

txikikoa naiz, hemen nire pasaporteak'. Automatikoki eraman beharko lukete adin txikiko zentro tutelatu batera. Sei hilabetez Aldundiaren egoitzetan baldin badaude tutelatu gisa, jada egoiliar baimena eskatu dezakete. Baina duela lau zapabost urtetatik hona zera gertatzen ari da: poliziaik bahitu egiten ditu adin txikikoen pasaporteak eta pasaporteak bihurtzen dute delitu baten frogak, dokumentazio faltsua izatea egozten dietelako". Beraz, zalantzan jartzen dute adin txikikoa denik, eta hezur frogak egiten dizkiete. Estonbak frogak hauek zalantzan jarri ditu: "Zientifikoki onartuta dago hezur frogak ez dela objektiboa: alderatze patroia gizonen kaukasiarren da, gizon edo emakumezko afrikar batek ez du patroia bera beteko. Hori Osasunaren Munduko Erakundeak esaten du! Eta oso inbasiboa da: eskumuturrak gain hortzak begiratzen dizkiete, barrabilak edo alua garapena ikusteko... esklabotza garaia ekartzen du gogora". Adin txikiko hauen adina zalantzan jarria izan denez, Aldundiaren ardurapeko izateari uzten diote eta kale gorrian geratzen dira. Gomezek Aldundiaren jokabidea salatu du: "Oso larria da. Gipuzkoako lege foralak dio adin txikikoak babestu egin behar direla, eta praktikan ikusten dugu poliziaik Aldundiak kudeatzen dituen zentroetara sartzen direla baimen judizialik gabe, galdeketa irregularrak egiten dizkietela adin txikikoei hezitzaileak aurrean egon gabe... eta Aldundiak ez du ezer egiten horiek eragozteko. Borroka judizial hori ere egiten ari gara, Aldundiak adin txikiko hauen tutela berreskuratu dezan".

Naziru da egoera hori bizi izan duenetako bat: "Lehen nire herrialdeko pasaporteak nuen, enbaxadan ateratakoa. Donostiako adin txikikoen UBA zentrori iritsi eta astebetara Espainiako Poliziak etorri ziren zentrori eta pasaporteak kendu zitaten faltsifikatua zela esanaz. Poliziak etxean pasatu nuen gaua eta biharamunean epaitegira joan ginen abokatuarekin. Epaileak esan zuen: poliziaiek diozue gazte honek ez duela pasaporteak dioen adinaren itxurarik, eta aurpegian ez omen duela pasaporteko argazkian duen mar-

karik, baina nire ustez bai, adin hori dirudi eta marka badu. Esan zidan itzuli nintekeela UBARA, baina pasaporteak enbaxadara bidaliko zuela, egiazkoa zen frogatzera. Zortzi hilabete egon gara zain eta enbaxadatik gutuna jaso dugu egiazkoa dela esanaz. Oraindik ez didate pasaporteak itzuli. UBAn denetik dago, badira bere lana ondo egiten duten langileak. Ni ez ninduten ondo tratatu. Ziur nago beraiek deitu zietela poliziaiei nire bila etortzeko". Mahmudek ere badaki zer den trantze hori: "Arrasateko kalean nengoan egun hartan. Poliziak etorri zitzaizkidan pasaporte eske. Adin txikikoen egoitzako buruak bazekien zer gertatzen zen, nire pasaporteak galdezka deitzen baitzioten, baina niri ez zidan ezer kontatu. Poliziak pasaporteak eman nien eta bost minuturako erantzun zidaten faltsua zela. Egund gutxi batzuk beranduago, klasean nengoela, poliziaik bila etorri zitzaizkidan. Eskuburdinak jarri zitzaizkidan eta hor hasi zen historia osoa. Bi urte eman ditugu epaiketetan... gogorra izan da. Borrokatu dugu eta lortu dugu epaileek esatea pasaporteak ez zela faltsua, adin txikikoa nintzela".

IRTENBIDEA: GUZTIONTZAKO ESKUBIDE BERAK

Estonbak adierazi du errealitatea onartzea dela konponbiderako lehen urratsa: "Jendea beren herrialdeetatik kanporatzen ari gara. Soluzio bide bakarra beste herrialdeei lapurtzeari uztea da. Utopia hori iritsi bitartean, irtenbidea migrazio fluxuak existitzen direla onartzea da. Aldundietan, udaletan, ez dago etorkinentzako bulegorik. Zergatik ez?". Agirrek Irungo Harrera Sareak hasieratik eskatu duena aldarrikatu du: "Harrera duina eta integrala. Praktikan erakutsi dugu posible dela. Eta hori ez da administrazioa egiten ari. Bestela guk ez genituzke bazkariak egingo, edo arropa kudeatuko, edo gaixo daudenen jarraipena egiteko lantalderik osatuko". Santxok Bilboko Hiritarren Harrera Sarearen helburua lorgarria dela nabarmendu du: "Herri mugimenduak gai-

tasuna baldin badu bere baliabide apurrekin harrera integral bat garatzeko, erakundeek diru publikoarekin eta dituzten baliabideak kontuan hartuta, inguruko GKEekin, herritar antolatuekin harremanetan... borondatea izanik, Bilbo Harrera Hiri bihurtzea oso erraza litzateke".

Administrazioak baliabideak banatzerakoan bereizi egiten ditu migratzaileak, kasuistikaren arabera: asilo eskaera egin duten errefuxiatuak, adin txikikoak, "aldi baterako trantsitoan" daudenak, zaurgarritasun egoeran dauden ume eta emakumeak... Gonzalezi hori "terriblea" iruditzen zaio: "Miseria sailkatzea da, batzuei apur batzuk emateko eta beste batzuei beste apur batzuk. Migratzeko arrazoiak anitzak dira eta denak dira zilegi. Oinarri oinarrizkoa da bizitza on baterako eskubidea. Eta nortzuk dira eskubideen subjektu? Norbanako guztiak. Batez ere, gure ongizatea besteen miseriaren gainean erakia dagoenean. Hori ari zaizkigu migratzaileak bistaritzen, uneoro". Agirrek ere irtenbidea pertsona guztientzat aterpea dela esan du, sailkapenik egin gabe: "Kalean bizi den jende guztiarentzako bilatu behar da soluzioa. Guk ez ditugu eskubide bereziak eskatzen inorentzat, migranteentzat ere ez. Alderantziz, eskatzen duguna eskubide berdintasuna da, eta dagoena, guztiontzat egotea. Irunen hainbeste biztanle izanik, oraindik ez dago albergerik ere kalean bizi direnentzat". Estonbak ere politika integralak eskatu ditu: "Ghanatik etorritakoa izan edo Donostia-ko Bidebieta auzoan jaiotakoa izan, 16 urterekin bertan bizi diren denek eskubide berak edukitzea. Zergatik sektORIZATU dena?". Gomez bat dator eskubide guztiak guztientzat izatearekin, baina babes berezia eskatu du adin txikikoentzat.

... ETA ELKARTASUNA PIZTU ZEN

Uda honetan Hiritarren Harrera Sareak sortu dira Bilbon, Donostian eta Irunen. Bilboko sorrera azaldu du Santxok: "Ekainaren 28an hasi

ginen, kasualitatez. Errefuxiatuak Ongi Etorri taldeko kide batek 40 migratzaileko autobus bat detektatu zuen. Berez Espainiako Gurutze Gorriak Euskadiko Gurutze Gorriarekin koordinatu behar ditu autobusak, geltokira bila joan eta migratzaileak Gurutze Gorriaren dispositiboetara eramateko. Baina han ez zegoen Gurutze Gorriko inor, 40 lagun zeuden noraezean. Bilbon behin baino gehiagotan eman den egoera da. Ongi Etorriko hainbat pertsonarekin hitz egin zuen kide honek, eta bote-prontoan erabaki genuen lehen harrera dinamika martxan jartzea". Etorri berriei oinarrizko bizi-baldintzak bermatzeko espazioa zabaldu zuten Karmela gune autogestionatuan eta herritarrei dei egin zieten janaria eta arropa ekartzeko, txandak egiteko... Biharamunean, Bilboko Udalari bilera eskatu zioten, egoeraren inguruan eta udalak jarriko zituen baliabideez hitz egiteko. Aktibatutako elkartasun herritarraren ondorio izan zen erakundearen erantzuna: bi egunera Gurutze Gorriak 44 lagunentzako dispositibo ireki zuen Concha Generala kalean, "baina ez zien erantzuten zeuden beharrei. Beraz, gure mekanismoak praktikan jarri behar izan genituen behar horiek ase eta presio mekanismo bilakatzeko" azaldu du Santxok.

Irungo Harrera Sarearen sorrera ere "inprobisatua, kasualitatea" hitzekin definitu du Agirrek: "Uztailaren erdialdean hasi ginen, 20 bat lagunek 15 egun zeramatzatelako geltokian botata. Inork ez zien kasurik egiten, ez baleude bezala! 'Hemen jende hau dago bazterkeria egoeran, gainera muga ezin pasa, eta zerbait egin beharko da' pentsatu genuen". Gaueko 00:00etan hartu zuten hainbat elkarteetako kideek (SOS Arrazakeria, Errefuxiatuak Ongi Etorri, Irungo beste hainbat elkarte...) erabakia: biharamunean gosari solidarioa egingo zuten. Esan eta egin. Hurrengo goizean geltokira joan, bertan zeudenei proposatu eta denen artean Udaletxe atarian egin zuten gosaria. Medioetan oihartzun handia izan zuen. Lehen une hartan hasi eta uda osoan, Udalaren jokamoldea beti bera izan dela esan du Agirrek:

"Udala agertzen da, bai, eta gauzak egiten ditu, baina beti herri ekimenaren atzetik, inprobisatuta, eta era diskrezionalean (segun noiz bai eta segun noiz ez)".

Bilbon, Donostian eta Irunen sortu diren Hiritarren Harrera Sareek, oso argi dute harreraren ardura erakunde publikoena dela, eta herritarren sarearen helburua ez da hauek ordezkatzea. Agirre: "Harrera Sarean terreno gainean ari gara lanean, erabili dezatela erakundeek energia eta lehen eskuko informazio hori harrera hobetzeko eta benetan duina eta integrala egiteko". Santxok horrela definitu du Bilboko sarearen helburua: "Guk ez dugu asistentzialismorik egiten, guretzat harrera ekintza politiko, intsumitu desobedientea da. Erakundeek bete beharko luketen hori egiten dugu, baina presio mekanismo izatea da helburua. Horregatik egiten ditugu mobilizazioak, eta sozializazioa eta kontzientziazioa bultzatzen dugu". Bilboko Hiritarren Harrera Sareak izan duen bilakaera da presioa egiteko bokazio horren adibide: "Errefuxiatuak Ongi Etorri taldeak hartu zuen beregain hasierako 15 egun haietan harrera politiko dinamika hau, baina talde barruan eztabaidatu egin zen funtzioen inguruan eta erabaki genuen funtzio politikoetan zentratu behar ginela, salaketa, sentsibilizazioa eta interpelazio politiko-instituzionala eginez. Eta bestetik, auzoek bete nahi izanez gero ordu-ra arte Ongi Etorri eginiko harrera lanketa politikoa, haien esku geratuko zela. Harremanetan jarri ginen Atxuriko auzotarrekin, eta horrela egin zen jauzia Harrera Auzoen logikara. Geroztik hiru auzotan egin du bidea, Atxuri, Bilbo Zaharra eta Santutxun. Auzoak sentsibilizatzeko eta presioa zabaltzeko balio izan du".

Erakundeei beren ardura betearazteko, bai Bilbon, Donostian eta bai Irunen, migratzaileek bete beharreko baldintza da Hiritarren Harrera Sareko baliabideak erabiltzen hasi aurretik Gurtze Gorriko aukera denak baliatzea: ahalik gau gehien han lo egitea, otordu-txartelak erabiltzea...

ASISTENZIALISMORIK EZ. AUTOANTOLAKETARAKO ERREMINTAK GARATUZ

Etorri berriekin bizitzako une batzuk partekatzeko ekarri dute Hiritarren Harrera Sareek. Nolako harremanak eraiki elkarren artean? Agirrek etnozentrismoaz kontziente izatea ezinbestekoa dela dio: "Karitatetik aldendu nahi dugu. Joera paternalista eta biktimizatzekoa agertzen zaigu, eta nire buruari errepikatzen diodan esaldia da: mundu erdia egin du, muga pila bat gainditu ditu, polizia... bere kasa gu baino hobeto moldatzen da. Baina lanketa egitea ez dago sobera, etnozentrismoan heziak izan gara, eta gure burua hautematen dugu iparraldeko eta txuri, eta besteak hautematen ditugu gaixo, beltz eta herrialde 'atzeratuetatik' etorriak". Begirada kritikoari eusten dio Lakaxitako egunerokotasunean, baina balantzan jarriz gero, alde positiboa askoz ere pisu handiagoa izan duela nabarmendu du: "Izugarria da hain denbora gutxian zenbat gauza egin diren, eta gainera zein ongi atera diren! Formazioa behar dugu, edo irizpide bateratuak, baina egunerokoan ez da denborarik egon hori egiteko".

Santxok honela azaldu du Bilboko Hiritarren Harrera Sarean egin duten lanketa: "Hasieratik argi genuen dinamika horizontala izan behar zuela eta botere harreman zuri, heterosexual eta klasistak suntsitu behar genituela. Hasieratik asanbladan antolatu gara, jakinik boterea deseraitzea prozesu bat dela, ez dela egun batetik bestera egiten. Kontzientzia hartuz, pixkanaka pausoak eman ditugu". Hasierako asanbladak "nahiko katastrofikoak" zirela kontatu du: "Ohitura faltagatik, nekeagatik, bidaia luzea izan zutelako, oso berandu egiten genituelako... oso parte-hartze txikia zuten. Orain, afaldu aurretik egiten dugu asanblada, efizienteago da, eta parte-hartzea handia. Eta orain migratzaileak dira sukaldeko eta garbiketako txandak antolatzen dituztenak". Boluntarioek harrera integral batek eskatzen dituen eremu anitzetan "akonpainamenduak" egiten dituztela azaldu du: gaztelania

ikastaroak, medikuarengana joateko akonpainamendua (osasan publikoko langile kontzientzia-tuek bidea errazten dietela azaldu du), asiloa eskatzeko akonpainamendua eta baita asistentzia juridikoa ere, baina azken hau esperientzia pertsonalen bidez; hemen urte gehiago daramatzaten migratzaileek eskarmentua dute paper kon-tuetan eta haien esperientzia partekatzen dute: "Akonpainamendua ere migratzaileek egitea da helburua. Haien arteko elkartasuna praktikan egikartzeko modua da. Boterea deseraikitze-ko eta menpekotasunaren logika hausteko, emeki-emeki ematen ari garen pausoa da".

Irunen lantaldeka antolatu dira eguneroko beharrei erantzuteko: harrera eta informazio lantaldeak egunero ematen du kale buelta, hirira jende berririk etorri den ikusteko, eta hauei dituzten aukerez informazioa emateko. Sukalde lantaldea ere badago, osasan jarraipena egitekoa, arropa, komunikazioa, eta hizkuntzak irakasteko taldeak. 125 herritar ari dira dinamika horretan lanean, eta Agirrek balioan jarri ditu parte hartzeko beste moduak ere: "Jende asko dago arropa edo dirua ematen duena. Jendea mugitzen ari da, bakoitza bere parte hartzeko moduan". Irunen ere migratzaileen autogestioa sustatzen dute: "Saiatzen ari gara Irunen bizitzen denbora bat daraman jendea Lakaxitako lantalde guztietan txertatzen. Hori da normalizazioa eta berdintasunean parte hartzea. Gainera, askoz eraginkorragoa da harrera egitera beltz batekin agertzea. Gu inguratzean uzkurtu egiten dira, eta gure lehen hitza izaten da 'ez gara polizia'".

Gonzalezek horrela azaldu du nola eraikitzen dituen migratzaileekiko harremanak: "Enkontruan dago gakoa, elkar entzun eta elkar ulertzean, beti. Administrazioaren eta herri mugimenduaren arteko ezberdintasuna horixe da: administrazioak bere ekintza marko formalera mugatzen duela, aldiz, herri mugimenduak marko hori gainditzen du eta harremanean oinarritzen da. Bizitzaz ari gara, eta ezin da pertsona bat zatikatu bulegoko lanorduen arabera. Bene-

tako enkontruak eragin egiten zaitu, zu nolakoa zaren eta nola eraikia izan zaren pentsarazten dizu, eta hortik benetako hartu-eman bat sortzen da. Bizitza ezberdinak elkartzea da gakoa, eta hori gertatzeko marko bat eraikitzea. Donostia-ko Txantxerreka adibide bat izan daiteke".

HIRU GAUEZ LO EGITEKO EGOITZAK ETA KARITATEAREN NEGOZIOA

Gurutze Gorriak kudeatzen ditu Eusko Jaurlaritzaren larrialdiko aldi-baterako harrera zerbitzuak. EAEn 213 leku daude: 88 Bilbon, 35 Gasteizen, 30 Donostian eta 60 Irunen. Administrazioak fundazio pribatu honen bidez, migratzaileak artatzeko ardura esternalizatu egin duela salatu du Gonzalezek: "Zerbitzu sozialen pribatizazioaren logika jarraituz eginiko operazioa da. Kudeaketak publikoa izan behar zuen. Badakigu zer dakarren pribatizazioak, gutxieneko kostea eta ardura zero. Aldi berean, Gurutze Gorria kontuz ibiliko da kritikak egin eta egoerak publikoki salatzerakoan. Autokontrola nagusitzen da".

Erakunde publikoek jarri duten irizpideetako bat da iritsi berri diren migratzaileek Gurutze Gorriak kudeatutako egoitzetan ezin dituztela hiru gau baino gehiago egin. Herri mugimenduaren presioaren ondorioz, bost gauera luzatu zuten epea abuztuan, baina Santxok salatu du Bilbon ez zirela bost gauena betetzera iritsi. Orain, atzera hiru gauetara murriztu dute egonaldia erakundeek. Arau horrek eragiten duen kontraesana jarri du mahai gainean Santxok: "Guk dakigula, Bilbon oso gutxitan egon dira Gurutze Gorriko ohe denak beteta. Abuztuaren 27ko asteko datuak oso esanguratsuak dira: 20-30 lagun egon ziren 88 lagun artatzeko espazioa duen Gurutze Gorriaren egoitzan, eta Hiritarren Harrera Sareak kudeatutako Karmelan 120-145 lagun artean egon ziren afaltzen eta lo egiten. Nahiago dute Gurutze Gorriaren oheak hutsik egotea, hiru egunez egon den pertsonari lauga-

rren gaua, bosgarrena, seigarrena egiteko aukera ematea baino". Agirrek Irunen antzera gertatzen dela esan du: "Izan dira egunak Gurutze Gorriak kudeatutako Lekaenean hamasei pertsonak lo egin dutenak eta Harrera Sareak kudeatutako Lakaxita gatzetxean hamabostek, toldo azpian. Negua ate-joka dela, hiru eguneko muga lazgarria izan daitekeela gehitu du: "Jendeak jarraituko du etortzen. Neguan ere kalean utziko ditugu, oheak libre dauden bitartean?"

Trantsitoan daudenen kasuan ere, aski al dira bost egun, iparraldeko herrietarantzko ibilbidean? Gonzalezek dio agian batzuentzako nahiko izango dela eta beste batzuentzako ez: "Hori da etorri berriak esan behar duena. Galdetzen zaie? Zein dira haien desirak? Bizipen oso bortitzak nozitu dituen pertsonak Espainian lur hartzen du eta astebetara Donostian dago. Erabat galdua. Agian bost egun horiek zoramenetik, superbibentzia oinarritzotik arnasa hartzeko izan litezke, edo ez". Santxok tinko dio egun horiek ez direla nahikoa: "Bidaia prestatzeko ere denbora behar dute: nola mugituko diren antolatuta, lan txukun bat bilatu pixkanaka dirua lortu eta bidaia ordaintzeko, iparralderago duten familiarengana badoaz haiekin harremanetan jarri, familiak dirua baldin badu hona bidali arte itxaron...". Irunen dakite ondoen trantsitoaren berri. Agirrek honela kontatu du: "Ondo bidean, Lakaxitan migratzaile bakoitzarekin dugun harremana oso egun gutxitarako da. Baina pasoa dagoenak ere bost egun baino gehiago behar dituela ikusten ari gara. Zergatik? Muga itxita dagoelako. Bada jendea muga pasatzen lau aldiz saiatu eta lau aldiz itzuli dutena. Baionan edo Bordelen harrapatuta ere Irunera ekarri dituzte beste batzuk..."

Irunera jotzen duten migratzaileek muga zeharkatzea dute helburu: "Jende gehiena Afrika mendebaldetik dator, frankofonoak dira kolonia zirelako eta Frantzia dute komunitatea. Hara iritsi nahi dute, edo bestela iparralderago, bizi baldintzak hobek direlako. Uda osoan pasa dire-

netatik Irunen bertan bizitzen gelditzea planteatzen ari direnak lauzpabost dira. Baina horiei ere soluzioa eman behar zaie". Aldiz, Bilbora iristen diren migratzaileen artean, bertan geratzea erabakitzen dutenen kopurua askoz handiagoa da. Santxok ohartarazi duenez, "horiek dira erakundeek beren diskurtsoetan ahazten dituztenak. Asilo politikoa eskatzen dutenen kopurua gorantz doa. Eta asilorik eskatu gabe ere Bilbon hilabete daramaten lagunak, beren burua Bilbon kokatzen ari dira emeki-emeki. Haien asmoa Europara iristea zen, eta hori lortuta, bakoitzak bere hausnarketa berri behar du, eta batzuk Bilbon geratzea erabakitzen dute, gustura daudelako, bertan badelako komunitate afrikar indartsu bat bere sarea duena, lan munduratzeko bat badelako oso prekarioa izan arren..."

LORTUTAKO ASKO, EGITEKO GEHIAGO

Agirrek azaldu du Irungo Harrera Sarearen hila-beteotako lorpena: "Jende asko pasatu da gatzetxetik bestela pasatuko ez zena. Hemen sortu dena oso berezia da. Era guztietako jendea dabil etengabe, adinez (20 urtetik jubilatuetara), jatorriz, ideologiaz... hori bonba bat da, eta funtzionatzen du. %90 emakumeak gara, gehien gehien-go. Feminismotik esaten dena, bizitza zentroan jarri eta hortik politika egin behar dela, konkretatzen ari da esperientzia honetan". Urte askoan migratzaileen gaia lantzen ari diren elkarteek irakaspenik ekarri diela azpimarratu du: "Mobilizazioa herritarren artean eta espontaneoki sortu da, ez da elkarten ekimen planifikatu bat izan. Biak behar dira, lan iraunkorra egiten duten taldeak, baina hainbeste jenderen parte-hartzea sustatzen duten ekimenak ere bai. Gosari hura egin ez bagenu, non geundek? Betiko moduan prentsurrekoa deitu bagenu manifestu bat irakurtzeko eta bilera eskatzeko gizarte gaietako zinegotziarekin, hainbeste jende inplikatu zen lanean? Ni gozatzen ari naiz. Pilak erabat kargatuta nabil, ekimenarekin maiteminduta". Gonzalezek ere emozioak jarri ditu balioan: "Ezkertiar

eta abertzale moduan, azken urteetan erdi itzalian genuen emozioa da agian esnatu dena, jendea motibatuta ikusten dut eguneroko praktikan. Horrek ekartzen duen astindua, nor garen-eta pentsatzeko, handia da. Gainera, elkartasun aukerak sortzen ditu. Errepresioaren jo-puntua kolorez aldatzen ari da, eta gure ibilbide militanteak eskainitako jakintza eta praktikak artikulatzeko eremu berri bat izan daiteke. Beste aukera bat, zubiak eraikitzeko".

Santxok dio Harrera Sareen dinamikak balio izan duela barneratuta ditugun balio klasista, heteropatriarkal eta arrazistak deseraikitzeko: "Migratzaileekin hitz egiteak eta haien barne historiak entzuteak deseraikitze prozesu hori azkartzen du". Jende askorentzat herri mugimenduetan parte hartu duen lehen aldia izan dela azaldu du eta errealtateaz kontzientzia hartzeko balio izan duela: "Egun bada klase ertainaren ideal oso zabaldua, gizarte parekide batean bizi garela, eskubide guztiak guztiontzako daudela bermatuak, ez dela jendarte arrazista... praktikan ikusten dugu ezetz. Proiektuaren parte sentitzeak ekarri du asebetetzea, harrotasun apal bat. Jendea ahalduntzen ari da eta badaki botere normatiboari kontra egiten ari dela eta herri boterean kokatutako logikan diharduela".

Uda honetan loratu diren Hiritarren Harrera Sareek badute lanik hasi berri den ikasturtean. Lakaxitako eguneroko dinamikatik begiratuta, opor ostea inkognita da Agirrerentzat: "Lanak eta lantaldeak ordenatu nahi ditugu, bakoitzak antolatu dezan bere ikasturtea, duen denbora eta aukeren arabera. Abuztua garrantzitsua izan da taldea egonkortzeko, jendea libreago zegoelako. Hemendik aurrera? Ikusteko dago zer gertatuko den". Santxok iragarri du ikasturtea hastearekin Bilboko ekimena beste fase batean sartzeko garaia iritsiko dela: "Lehen fasea izan zen Ongi Etorrirena, bigarren fasea da Harrera Auzoen dinamika, eta beste fase bat prestatzen ari gara, tentsioa igoko duena, gatazka urbanoa gehiago piztuz, baina harrera politikoaren logika intsumi-



Donostiako Txantxarreka gaztetxean.

tu autogestionatuari eutsiz. Bertan bizi eta lan egiteko eskubidea praktikan jartzearekin du zerikusia". Gonzalezek epe ertainera luzatu du begirada: "Zer baliabide sortu ditzakegu Euskal Herrian, ekonomia sozial eraldatzailetik adibidez, ekonomia sortzeko? Badaude esperientziak: Bartzelonan Alencop, txatarra biltzeko kooperatiba edo Diomcoop, kale saltzaileen kooperatiba, Bartzelonako udalarekin elkarlanean". Euskal Herrira etorrita, Buruntzaldean egiten ari diren lana ekarri du gogora: "Tokiko administrazioa, EAEko enplegu zerbitzuak, eta hirugarren sektoreko elkarteak lankidetzan hasi dira integrazio-rako ibilbide profesionalak eskaintzen, kooperatiben sorrera sustatzen... Egitura badago eta borondatea ere bai". ■

Migratzaile gaztetxeroak

Asier Gonzalez de San Pedro

Irailaz geroztik Donostiara ez da migratzaileen autobusik iristen eta Zorroagako harrera zentroa hutsik dagoen bitartean, hamalau pertsonak gazteteanean egiten dute lo. Izan ere, Donostiako herritarrek eta hainbat eragiletako kideek Hiritarren Harrera Sarea sortu zuten. Hasieran Aralarrek utzitako lokalean moldatu ziren baina egun gutxira Txantxarrekako gazteekin jarri ziren harremanetan, gaztetea pertsona desplazatuaren “gune segurua” bilakatu zedin. Gazteek baiezkoa eman zuten eta abuztuaren 10ean hasi ziren migratzaileak jasotzen.

Proiektuaren helburua gizarteari instituzioen pasibitatea erakustea da, egoera salatzea eta presioa egitea, udalak eta Gurutze Gorriak baliabide gehiago jarri ditzaten. Gaztetea pasoko gune bilakatu nahi dute eta ez pertsona desplazatuaren etxe. Oraingo bi fasetan banatu dute proiektua: lehena, harrera egin eta migratzaileak beraien helmugetara bideratzea eta bigarrena Donostian geratzen direnak bideratzea errolda eskuratzeko. Proiektua hiru taldek atera dute aurrera: Hiritarren Harrera Sareko kideak, Txantxarrekako gazteak eta gazteteanean ibiltzen ez diren bolondresak.

Gaztetekeko kideek hasieratik azaldu zuten harrera gune bilakatuko zela gaztetea baina ez zela hotela izango; pertsona desplazatuek kudeatuko zuten, txandak antolatuz garbiketarako edo sukaldatzeko, beti ere bolondresen laguntzarekin. Orain arazoak dituzte zaintza txandak betetzeko eta herritarrek animatu nahi dituzte parte hartzera. Zaintzaz gain, beste lantalde hauek ere martxan dira: Komunikazio taldea, Azpiegitura taldea, Janari taldea eta Itzulpengintza taldea.

Gazteteanean aldaketa nabaritu da. Lehen ibiltzen zen jendea asko oraindik ez da agertu gaztetean; aldiz, ibiltzen ez zen jende asko gerturatu da.

Hala ere, gazteek beraien ekimenekin jarraitu dute: pertsona desplazatuak etorri zirenetik kontzertu bat, pelikula proiektzioa eta Donostiako Piraten ekimen bat egin dituzte bertan. Gainera desplazatuekin hainbat ekimen egin dituzte: pilotan jolastu, Aste Nagusian suak ikustera joan, gaztetearen baratzea elkarrekin landu, euskara erakutsi iritsi berriei eta hauek frantsesa gazteei, igeriketa ikastaroak, Antigua-Luberriko futbol taldearekin entrenatu, Dokan egindako elkartasun kontzertuan parte hartu, EPAn klaseak jaso...

Gaztetearen eraikina Donostiako udaletxearena da eta lau urterako kontzesioa sinatzear daude. Baiezkoa badutela adierazi dute eta horrelako proiektuek gazteteari indarra ematen diola uste dute.

Auzoa eta hiria ondo erantzuten ari dela uste dute gaztetekeko kideek: Bretxako arrain-saltzailleek, adibidez, larunbatero igotzen dute arraina gaztetean eta Oiartzungo kooperatiba batek barazkiak eramaten ditu. “Familia txiki bat” garatu dutela dio gazte asanbladako kideetako batek eta batzuk desplazatuekin harremana egiten ari direla aitortu du.

Dagoeneko hamazazpi pertsona bizi izan dira gazteteanean eta 500 ohe baino gehiago eskaini dira (pertsona askok errepikatu dute). Orain hamalau pertsonak egiten dute bizitza gazteteanean. Hasieran pasoko eraikina zena orain batzuentzat hilabetez etxea bilakatu da. Adin guztietako pertsonak egon dira bizitzen gazteteanean baina bi izan dira protagonista nagusiak: Sara (lau urte) eta Malik (urte eta erdi). Marie Mar-ek (33 urte, bi ume hauen ama) kontatu du bidaiaren hasiera nahiko erraza izan zela, Boli Kostatik Marokora hegazkinez egin baitzuten.



Gazteen arteko harremana sendotu da Txantxarreka gaztetxean.

Marokoz galdetuta, elkarrizketako une gogorre-
na etorri da. “Oso zaila” izan zela baino ez du
esan eta negarrez hasi da. Inguruko pertsona
desplazatuak Marokoko bideo bat erakutsi digu-
te: ihesean datozenak basoetan bizi dira eta poli-
ziak atzemanaz gero 1.000 kilometro atzera egi-
narazten diete, bata besteari lotuta. Ohikoa
bilakatzen ari da atzera-bidaia horretan pertsona
desplazatuak autobuseko leihoa puskatzea eta
autobusa martxan dela salto egitea. Bideoan bi
pertsona ikusten dira lurrean, martxan salto egin
ostean, kamioi batek harrapatuta. Anbulantzia
ikusten da baina ez du ezer egiten lurrean dau-
den bi kideak laguntzeko. Malik eta Sara ere
Marokoko basoetan bizitzen egon ziren bere
amarekin itsasontzia hartzeko zain. Lo zeudela
itsasoratu zituzten bi txikiak. Ama gaizki jarri
zen itsas bidaian eta botaka egiten hasi zen. Sara
esnatu eta egoera ikusita “hil egingo gara! Hil
egingo gara!” oihuka hasi zen. Malik txikiari mal-
koak isurtzen zitzaizkion baina ez zuen txintik
esan. Amak dio Malik “traumatizatu” egin zela

momentu horretan. Espainiako kostara gertura-
tzean Guardia Zibilak ez zien sartzen utzi nahi,
Gurutze Gorria etortzean erreskatatu zituzten.
Cadizen lurrartu zuten eta handik Madrilera jo
zuten. Madrilen harrera familia batekin pasa
zuten egun bat eta Bilbora bidaiatu zuten esta-
zioan lo egin ostean. Bilbon ere autobus estazio-
an lo egitekoak ziren baina afrikar batek Gurutze
Gorrira eraman zituen. Ondoren Bilbotik
Donostiara joan ziren eta Ategorrietako harrera
etxean zegozkien egunak igaro ostean, Txantxa-
rreka Gaztetxean bukatu zuten. Mariek euskal
jendearentzako hitz onak baino ez ditu, “harrera
handiko” pertsonatzat gaitu euskaldunak, baita
errespetu handikotzat ere. Umeak pozik eta
pixka bat aztoratuta ere egon direla dio, hainbes-
te jenderen arretarekin. Euskal Herrian geratze-
ko intentziorik ez duen arren, Eusko Jaurlaritzak
protokoloa aktibatu eta Gasteizera eraman
zituen hirurak. Gasteizera bideratu izana Hirita-
rren Harrera Sareak egindako lana eta protesten
lorpena izan zen. ■

Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

inor
ez
da
ilegala

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

15€
Bidalketa gastuak
4€

